

«Ez dezagun bizitza eskapatzen utzi»

Muturak baztertuta sortu du Joseba Sarrionandiak bere obra, Aitzpea Azkorbebeitiak eta Gerardo Markuleta Bilbo Zaharra Forumak antolatutako hitzaldian azaldu dutenez.

IRUNE BERRO
Bilbo

Askok aipatzen dituzten muturretatik urrun, obra zabala eta gizatiarra sortu du Joseba Sarrionandiak. Aitzpea Azkorbebeitiaren aburuz. Mitoetatik ihesi, hainbat genero landu ditu. Horregatik, haietako batean ezin saikla daitekeela pentsatzeko du Sarrionandiari buruzko tesiaren egileak. «Sortzaile emankorra eta oparoa da». Joseba Sarrionandiaren obrak mintzatu zen Azkorbebeitia herenegun, Bilbo Zaharra Forumak gonbidatuta. Gerardo Markuleta izan zuen mahaikide. Literatur ikertzailearen ikuspegitik mintzatu zen Azkorbebeitia; sortzailearenetik Markuleta.

Izuen gordeleketan barrena izan zen Sarrionandiaren lehen poemarioa 1981ean. *Marinel zaharrrak* etorri zen 1987an, *Gartzelako poemak* 1992an, eta *Hnuj illa nyha majah yahoo* 1995ean. «Garapena dago batetik bestera», Azkorbebeitiaren esanetan; «hiru fase daude liburu hauetan». *Izuen gordeleketan barrena* poesia estetizistari jarraiki idatzitako obra da, Azkorbebeitiaren ustez. Literatur erreferentzia ugari ditu, halaber. «Literaturaren gainean eginiko literatura da».

«Garai hartan euskal literatura ere egoera agorra zen, eta Pott Bandakoek hori salatuzuten; ez zela literatura egiten uste zuten, eta behar-beharrezkoa zela literatura modernoa egitea. Bazeuden Aresti, Saizarbitoria, Txillardegi... baina beraientzat ez zen nahikoa. Tradizio baten falta sumatu zuten, Europako beste herri batzuetara jo zuten haren bila; eta asko irakurri zuten: gehiegi. Jon Juaristik esan zuen irakurgaiaren indigestioa gertatu zela».

Izuen gordeleketan barrena liburuaren nondik norakoak konprenitzeko, horrenbestez, testu ingurua kontuan hartu behar dela pentsatzeko du Azkorbebeitiak.

«1980. urtean kartzelatu zuten Sarrionandia. Eta Patziku Peruren esaten duenez, literatur mundutik erreallitateko jauzia gertatu zen, *Gartzelako poemak* liburu zeharo ezberdina baita».

Gerardo Markuleta aburuz, «beltza, latza eta garratza da» poemario hartan landutako poesia.



Gerardo Markuleta eta Aitzpea Azkorbebeitia. LUIS JAUREGALITZ / ARGAZKI PRESS

Kartzelan idatzia dago, eta idazleak bizi duen egoerak isla zuzena du sortutako obran. Azkorbebeitiak gogorarazi duenez, «bere garaian, jende batek kartzelaren gehiegizko isla hori kritikatu zuen». Baina ikertzailearen iritziz, ulergarria da hori hala izatea. «Bizipen latz horren ondoren, zeure buruarekin zintzoa izateko eta horretaz idazteko eskubidea ere baduzu».

«Dena dela, bitxia ere bada hori, zeren sasoi hartan idatzi zituen narrazioetan bizkarra ematen dio bizitzaren ari den esperientziari, eta fikzioan murgiltzen da. Lekuak beti dira urrunak, zehaztu gabeak, ez da bere inguruko errealtatea agertzen. Edorta Jimenezek esaten zuen *ez-lekuak* eta *ez-denborak* azaltzen direla». Era horretan jokatuko Sarrionandiak mota askotako arrazoiak izan ditzakeela adierazi du Azkorbebeitiak; «klandestinitatea, esaterako». Sinesgarritasunarekin ere izan dezake loturarik. «Idazleari errazagoa zaio agernatoki indefinituan kokatzea istorioa».

DESERRIAREN ERAGINA. Urteek aurrera egin ahala, bizitakoa eta idatzitakoa hurbilduz joango dira Sarrionandiaren obran, «ez autobiografia egiteko, baizik eta idatzitakoa benetakoa izan dadin. Erabateko fikzioan murgildu beharrean, benetako bizipenaketa sentimenak hartuko ditu idazleak abiaburutzat, eta kreaioaren gal-

«Sarrik onartzen du gauzak aldatzea zaila dela, baina saiatzea merezi duela uste du, ekitea, bidean jartzea»

AITZPEA AZKORBEBEITIA
LITERATUR IKERTZAILE ETA IRAKASLEA

bahetik pasatu ondoren emango ditu», esan du Azkorbebeitiak.

«Deserria konstante bat Sarrionandiaren obran», ikertzailearen esanetan. Eta sharen lan bitan ezin argiago antzeman daitekeela uste du: *Lagun izoztua* nobelan eta Ruper Ordorikaren *Memoriaren mapan* diskoan bildutako poema sortan.

Lagun izoztua-n, hiru kontakizun, hiru plano tartekatzen ditu Sarrionandiak. Eta haietako baten ageri den pertsonaia, Goio, erbesteak dakarren nahasmenaren erdian bizi da. «Beste mundu eta beste sasoi batean bizi den sentsazioa dauka. Horri gehitu behar zaio identitate faltsu batekin bizi beharra. Zeren Goio klandestinitatean bizi da, eleberria idazten ari den Josu pertsonaia bezala, eta jakina, Sarri bera bezala. Klandestinitatea erbeste baina gogorragoa da, erbesteak bere identitatetik ere urrundu behar baitu».

Memoriaren mapan diskorako idatzitako piezak, orobat, beren herriatik alde egin duten pertsonaiaz josita daude, Azkorbebeitiaren hitzetan. «Hori ez da kasualitatea».

Deserriak berarekin dakarren erro ezaren sentimena, 90eko hamarkada hasieratik aurrera, genero bateko zein besteko lanetan, han-hemenka agertu da. Poema askotan. *Minotauroa*-n esaterako. «Erro eza ideia sakona da idazlearen; ideia horrek badu zentzu soziopolitikoa ere: mundu hau den

«Haren lan gutxi daude gaztelaniara itzulita; Sarri irakurriko luketen askok ez dute hartarako aukerarik»

GERARDO MARKULETA
IDAZLEA

modukoa izanda, ikusita zer injustizia eta zapalketa dagoen, 'ni ez naiz hemengoa' sentitzen du idazleak —beste liburu baten izenburua da hori ere—. Sentimen hori, ordea, ez da erbestearena bakarrik. Edonor senti daiteke arrotz munduan, edo mundua arrotz egin dakioke edonori».


PENTSASERA BIHOZBERA. Alabaina, Azkorbebeitiak argi dauka: «Sarriren pentsaera baikorra eta bihozbera da. Onartzen du gauzak aldatzea zaila dela, baina saiatzea merezi duela uste du. Ahalegina egiteak, ekiteak, bidean jartzeak».

Lagun izoztua-n hala dio Sarrionandiak. «Egin beharko dugu filosofia apur bat, eta saiatu beharko gara gizarte hobetzaile erakitzen, ea horrek zentzu pixka bat ematen digun, ez baitakigu oraindik mundua harrezkero denon etxea izango den ala desterru orokorraren bazterra».

Idazlearen saiatzearen aldeko jarrera, bizitzaren aurreko jarrera ere bada, Azkorbebeitiaren irudiko. «Hots, nork bere bizitzan helburuak izateko deia egiten digu Sarri. Eta helburu horien alde saiatzera. 'Ez dezagun bizitza eskapatzen utzi', esaten du berak».

Bestalde, Gerardo Markuleta askotariko «literatur harremanak» eduki ditu Sarrionandiarekin *Izuen gordeleketan barrena* argitara eman zuenetik. Izugarri miresten du haren obra; areago, eragin handia izan du berean, kritikariek esan dutenez. Markuleta iritziz, «Sarrik ez du panfleto idatzi». Baina pena bat du: «haren lan gutxi daude gaztelaniara itzulita. Eta, beraz, ideologiagatik Sarri irakurriko luketen askok ez dute hartarako aukerarik».

PERTSONAIA



Sufrikarioa azalean tatuaturik

Izena: Juan Gelman. **Jaiotze data:** 1930eko maiatzaren 3a. **Lekua:** Buenos Aires (Argentina).

Bizitzaren gazi-gozoak poesiarren saskian sartu ditu. Eta gaziak asko izan dira Juan Gelmanen bizitzan. Bere lan literarioa erraiekakoa dela onartzen diote gehienek, eta aitoritza anitz lortu ondoren gaztelaniako sari nagusitzat jotzen dena irabazi berri du, Cervantes Saria.

Argentinan jaio zen eta han hezi zuen semea, militarrek torturatu eta hil zuten seme bera. Erraina ezagutzeko beta handirik ere ez zuen izan, 19 urteko gaztea haurdun zela bahituta eraman baitzuten, erditu eta gero hura ere akabatzeke. Gelman ezagutzen ez zuen biloba izan zuen urte luzetan. Orain ezagutzen eta maite duen biloba dauka

Bizitzaren esanahia bera da besteak beste *Fabulas*, *La junta luz* eta *Anunciaciones* obretan lirismo bihurtu duena, bizitza baino ez, eta hori bezainbeste. ■ XABIER MARTIN

Euskaltzain berri bi hautatzeko bozketa egingo dute gaur

ERREDAKZIOA
Donostia

Euskaltzaindiak Joan Mari Torrealdai eta Lourdes Oñederra euskaltzain oso bihurtzeko hautagaiak bozkatzeko dituzte gaurko osoko bilkuran. Bilbon izango da ekitaldia, eta 29. eta 30. zenbaki-hutsarteak betetzeko hautagaitzen inguruan erabakiko dute euskaltzain osoek.

Joan den urriaren 26an Donostian egindako bilkuran Torrealdai eta Oñederra euskaltzain urgazleak proposatu zituzten 29. eta 30. eserlekuak betetzeko. Jose Antonio Arana Martixak, Miren Azkarete eta Andres Urrutiak proposatu dute Torrealdairaren hautagaitza, eta Henrike Knorrek, Xabier Kintanak eta Pello Salaburuk Oñederrarena.